VITORIA GASTEIZ green capital

XII. EDIZIOA

# JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA

## 2022ko iraila
## 2023ko maiatza



EMAKUMEEN ETXEA
CASA de las MUJERES
Vitoria-Gasteiz

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

**Informaziorako telefono-zenbakia:** 010
**Gasteiztik kanpo deituz gero:** 945 161 100

**GASTEIZKO EMAKUMEEN ETXEA**
Berdintasun Zerbitzua
Etxanobe jauregia
Santa Maria 11 · 01001 · Vitoria-Gasteiz

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
www.vitoria-gasteiz.org/emakumeenetxea



@emakumeenetxeavg

@VG_berdintasuna

Berdintasuna VG

emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city
igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

945 16 13 45 / 945 16 12 14

Eskolako idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, Kooperatiba Txikia

*Herri Handi* hitzaldi-zikloaren koordinazioa: Flora Pozzobon

Ilustrazioak eta azalaren diseinua: Habemus Estudio

Diseinua eta maketazioa: La Debacle

Itzulpena: Alaitz Andreu

Inprimaketa: Héctor Soluciones Gráficas

L.G.: VI 673-2018

Genero Indarkeriaren
aurkako estatu-ituna

# AURKIBIDEA


**KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK ................................ 6**

**IKUSEZINAK................................................................... 7**

**INAUGURAZIOA. LAS QUE LIMPIAN............................................ 8**

**IKERLAN FEMINISTEN III. LEHIAKETA.......................................... 9**

**HERRI HANDI** **10**

**Herri handiaren hitzaldiak,**
**infernu txiki baterako**

REBELDÍAS ECOFEMINISTAS CONTRA EL PODER CORPORATIVO...........12

GENOCIDIO CULTURAL EN LA SABANA BRASILEÑA Y LAS RESISTENCIAS DE LAS MUJERES.........................................................13

ECOCIDIO EN BUENAVENTURA. ASÍ SE PROVOCA LA POBREZA............14

DESPLAZAMIENTO FORZADO Y LUCHA POR LA VIDA EN MESOAMÉRICA ...........................................................................15

**HITZALDIAK** **16**

FEMINISMOS A LA DERIVA EN LA CULTURA TERAPÉUTICA ......................18

LA REACCIÓN PATRIARCAL: MACHOSFERA, MASCULINISMO Y ULTRADERECHA...........................................................................19

*HABLEMOS CLARO* LIBURUARI BURUZKO AURKEZPENA ............................20

FEMINISMOS DISIDENTES ............................................................... 21

PORNOGRAFÍA Y JUVENTUD: LA EDUCACIÓN SEXUAL COMO ALTERNATIVA ...............................................................................22

SITUACIÓN ACTUAL Y RETOS EN EL EMPLEO DE HOGAR Y DE CUIDADOS ..............................................................................23

HORRELA TRATATZEN GAITUZTE... ETA HONELA TRATATU BEHARKO GINTUZKETE! ..........................................................................24

CUANDO LAS PERSONAS LGTBI SOLICITAN PROTECCIÓN INTERNACIONAL EN ESPAÑA... ........................................................25

**ARTE ESZENIKOAK** **26**

"ONLINE EDOTA OFFLINE LIBRE IZAN NONAHI" TOPAKETA. (ZIBER)INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZEN ALDE.......................28

MORDIENDO LA VERDAD. RECUPERANDO LA HISTORIA DE LAS MUJERES.......................................................................................29

ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA ..................................................30

NO SOY TU GITANA.......................................................................... 31

LOA LOA, LAGUNA...........................................................................32

eRRe. Aldarri bat bertsoz ...................................................................33

MAIO..............................................................................................34

## ZINE FORUMA 35

LA VIDA ERA ESO ........ 36
LINGUI ........ 37
WRITING WITH FIRE ........ 38
LIBERTAD ........ 39
LIMIOR ........ 40

## IRAKURLE KLUBAK 41

FEMINIST AGENDA EUSKAL LITERATURAN IRAKURLE-KLUBA ........ 42
LA HORA VIOLETA IRAKURLE-KLUB FEMINISTA ........ 43
IRAKURKETA OKERRAK, LECTURAS DESVIADAS IRAKURLE-KLUBA ........ 44
IRAKURKETA ERRAZEKO KLUB FEMINISTA ........ 45

## IKASTAROAK ETA LANTEGIAK 46

HIRIGINTZA FEMINISTA ........ 48
CHI KUNG-AREN HASTAPENAK ........ 49
HITZ TROKATUAK: HAURTZAROKO SEXU-ABUSUEN INGURUKO IKUSPEGIAK ........ 50
NIRE GORPUTZA GUDU-ZELAI BAT DA ........ 51
PERREO FEMINISTA ........ 52
ZINEMA ADITU: BEGIRADA ETA ENTZUMENA ARTATUZ ........ 53
INDARKERIA MATXISTA AZTERTZEKO ETA ERANTZUN KOLEKTIBOAK ERAIKITZEKO GAKOAK (Sakontze lantegia) ........ 54
ZURRUMURRUEN AURKA, GENERO-IKUSPEGIAREKIN ........ 55
SEXUALITATE OSASUNGARRIA ETA ANIZTASUNA ........ 56
DOWN POWER ........ 57
MAITASUNEAN PENTSA DAITEKE? GURE HARREMANETAKO INDARKERIARI HARIAK ATERATZEN ........ 58
DENBORA ETA ESPAZIOA HEZKUNTZAN. IKASLEEN GURASO ELKARTEEN PROPOSAMEN HEZKIDETZAILEAK ........ 59
LIBANON ERREFUXIATUTAKO EMAKUME PALESTINARRAK EZAGUTZEN: 'AHLAM, BIZITZA BATEKIN AMESTUZ' ........ 60
JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK ........ 61
AUTODEFENTSA FEMINISTA (GAZT) ........ 62
ESKURA ETA BAIMENIK GABE ........ 63
AUTODEFENTSA FEMINISTA (EUS) ........ 64
"PIONERAS // AITZINDARIAK" DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA ........ 65
EMAKUME GORRAK TOKIAK KONKISTATZEN. UTOPIA ERREALITATE ........ 66
BI ZI. BISEXUALITATEA GERALEKU ETA (EZ) GELTOKI ........ 67
HORIEK BARREAK Umore-lantegia, ikuspegi feministatik ........ 68

ADINEKO EMAKUMEEN GORPUTZA BIRPENTSATZEN .................................. 69
ALMENDRAKO IBILBIDEA. IKUSARAZI BEHARREKO HISTORIA:
EMAKUMEAK GASTEIZEN ..................................................................................70
BADATOR KUIRRA! ........................................................................................ 71
ZER EGIN DEZAKEGU TRANS* NERABEEN BIZITZA HOBETZEKO? ............ 72
TRANS IDENTITATEAK ETA MIKROZISEXISMOAK........................................ 73
IMPRO LGTBIQA+ ..........................................................................................74

**#FEMINISMOANITZEL** **75**

#FEMINISMOANITZEL IRAKURLE-KLUBA ..........................................................76
LESBIANISMOA ETA BISEXUALITATEA:
BADUTE ZERIKUSIRIK NIREKIN? ................................................................... 77
AUTODEFENTSA FEMINISTA .........................................................................78
DOWN POWER ............................................................................................. 80
GURE ZIKLO MENSTRUALA........................................................................... 81
ANITZAK GARA ..............................................................................................82
Piztu emakumeON energia.............................................................................83
MaitEzmindu / ViolenciaNoesAmor
(Indarkeria matxistaren prebentzioa) ........................................................ 84
KAPOEIRA. SAFOKO BERINBAOA ................................................................. 85
NAHI DUGUNA IZANGO GARA!...................................................................... 86
GINKANA FEMINISTA ....................................................................................87
'UMEAK ETA ANIZTASUNA' IPUIN-LANTEGIA................................................. 88

**ITXIERA. EZ AMOUR EZTA TOUJOURS .......................................89**

**GASTEIZKO EMAKUMEEN ETXEA..............................................90**

# KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK

1. Hitzaldietan, **zeinu-hizkuntzako** interpreteak egongo dira. Gainerako jardueretarako interpreterik behar izanez gero, jakinaraz iezaguzue hiru egun lehenago, telefonoz edo posta elektronikoz: 945 161 345 / berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org. Gauza bera, **haurtzaindegi-zerbitzua** behar izanez gero.
2. Ikastaroetako eta lantegietako tokiak **iritsi** ahala esleitzen dira, zozketarik egin gabe. Tokiak agortuz gero, ez da erreserba-zerrendarik sortuko.
3. Gasteizko elkarte eta gizarte-taldeek berariaz eskatutako jarduerak barnebiltzen ditu eskolak, eta haien interes eta premien alderdi batzuei erantzutera daude bideratuta. Elkarlan hori giltzarria da, bai elkarrekin ahalduntzeko, bai hiriko elkartze-ehuna sendotzeko. Hori dela-eta, jarduera horiek dohainik eskaintzea erabaki du Berdintasun Zerbitzuak, eta elkarte horietako kideak ez direnentzat ere irekita daude.
4. Udal-instalazioen **bazkide zaretenok kuota murrizteko** aukera duzue ordaindu beharreko ikastaroetan zein lantegietan.
5. **Langabezian** bazaudete, dagokion prezioa % 15 murrizteko aukera duzu. Nahikoa da Lanbideren "izen-emate aldiko ziurtagiria" aurkeztea, jardueran izena eman aurreko zazpi egunetan jaulkitakoa.
6. **Gizarte-babesgabetasuneko egoeran** zaudetenok jarduerak doan izatea eska dezakezue, gizarte-zerbitzuen ziurtagiria aurkeztuta.
7. Izena eman baduzue baina azkenean bertaratu ezin bazarete, jarduera hasi baino lehen edozein gizarte-etxetan **baja ofizialki ematea** eskatzen dizuegu. Hala, beste batzuek hartu ahalko dute zuen lekua, normalean beteta egoten dira-eta. Gainera, baja ofizialki emanez gero, ordaindutako kuota itzuliko dizuegu, dirua zuen banku-kontura sartuz (ordaindutako zenbatekoaren % 15 atxikiko dugu, kudeaketa-gastu gisa).
8. A25 Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguneko programazioa.
9. M8 Emakumeen Eguneko programazioa.
10. M17 LGTBI-fobiaren Aurkako Eguneko programazioa.
11. BAIETZ ULERTU Jarduera hauetan parte hartzeko ez da beharrezkoa jendaurrean euskaraz hitz egitea, baina bai ulertzea.
12. Zeinu Hizkuntzako Interpreteen zerbitzua.
13. **Desgaitasun intelektuala** dutenei egokitutako jarduerak. Laguntzeko begirale bat behar baduzu, eska ezazu hiru egun lehenago, telefonoz edo posta elektronikoz: 945 161 345 / berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org

# IKUSEZINAK

Ongi etorri Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolaren hamabigarren ediziora. Eskola hau ezagutza, estrategia eta aliantza feministak sortu eta indartzeko trebakuntza-proposamena da, eta, 2021etik, Gasteizko Emakumeen Etxearen parte ere bada: Emakumeen Etxearen bidez, Eskolak egiturazko genero-oztopoei aurre egiteko baliabideak eskaintzen jarraitzen du, bai eta Gasteizko bizitza publiko eta pribatuko eremu guztietan berdintasunez parte hartzeko eskubidea sustatzen jarraitu ere.

Lan horretan, baina, ezinbestekoa da aintzat hartzea generotik harago ere badirela eragiten diguten eta osatzen gaituzten beste zapalketa-iturri batzuk. Bada, pertsona guztientzako herritartasun osoa bermatu nahi badugu, funtsezkoa da, oztopoak murriztearekin batera, errealitate eta identitate horiek ikusarazi eta ezagutzea.

Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolak guztiontzako eskola feminista izan nahi du: irekia, hurbila, irisgarria eta anitza. Badakigu oraindik ere asko dagoela egiteko, eta, hartara, aurrerapausoak ematen jarraituko dugu; batik bat, hiriko kolektiboen proposamenei esker. Eskerrik asko, benetan, Etxeguneko parte-hartzaileei eta Eskolaren elkarte laguntzaileei: zuoi eta lagun ikusezin guztioi eskaini nahi dizuegu ikasturte honetako programazioa. Ezkutukoa ikusi eta ikusarazi nahi dugu; ozen kontatu, baita zeinu-hizkuntzan ere, eta ahal den neurrian grabatuta utzi, ahalik eta modurik irisgarrienean.

22/23ko edizioan, ikuspegi feminista intersekzionala ardatz, askotariko gaiak jorratuko ditugu; hala nola, kultur-aniztasuna, sexu- eta genero-aniztasuna, zaintzen ekonomia, indarkeria matxistak, hezkidetza, emakumeen zahartzaroa, feminismo disidenteak eta dibertsitate funtzionala.

Horretaz gainera, krisi ekologikoaren kontra borrokatzen diren mugaz gaindiko mugimendu feministak ezagutzeko parada izango dugu, Herri Handi online hitzaldi-zikloaren barruan. Lurra eta herriak defendatzeko egitasmoez hitz egingo dugu, baita espoliazioekiko erresistentziez eta alternatibez ere.

Eta, amaitzeko, #FeminismoanItzel programazioan, gazteenentzako jarduerak izango ditugu: ginkana feminista, ipuin-lantegia, kapoeira, autodefentsa feminista, antzerkia eta inprobisazioa... feminismoa itzela baita ;)

Proposamen feminista honetara gonbidatuta zaudete, ikusezina ikusarazten jarrai dezagun.

# INAUGURAZIOA

## 2022ko irailak 28, asteazkena | 18:30

**TOKIA:** Felix Petite antzokia (Ibaiondo gizarte-etxea)

### LAS QUE LIMPIAN

Kartel bat logelako biraderatik esekita: 'Mesedez, txukundu logela'. Hondartzatik bueltan, oheak eginda, toallak garbi eta komuna ia garden daude. 'Garbitzen dutenak' izan dira, turismo-sistema prekarizatzailearen zama sorbalden gainean daramatenak.

Lan horri balioa eman dakioke, eta generotik bereizi? Badago turismo jasangarririk? Nork garbitzen du garbitzailearen etxea?



Batzuek ez dute sekula ere komunik garbitu, eta beste batzuek bostehun garbitzen dituzte hilabetean.

*Las que limpian* ez da garbiketako langileei buruzkoa bakarrik: emakumeei eta egunero zapaltzen dugun lurzoru bustiari buruzkoa da.

**Testua, zuzendariak eta antzezleak: Areta Bolado, Noelia Castro** eta **Ailén Kendelman**

**Konpainia:** A Panadaría

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

# IKERLAN FEMINISTEN III. LEHIAKETA

Parte-hartzaileek beren intereseko gai bat hautatu beharko dute, eta **ahalduntze feministako** esperientziei erreparatu edota gure hirian emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideen aldeko gizarte-eraldaketari ekarpenen bat egin.

Edizio honetan, ikerketa-lanean aritzeko **bidelaguntza** eskainiko da lehen aldiz, akademiaren edo ikerketaren eremuan lan egiten ez dutenek ere egitasmoan parte hartu ahal izan dezaten.

Ikerlanen proposamenak
**2022ko urriaren 3ra arte** aurkeztu ahalko dira.

**Bi proposamen** hautatuko dira, eta bakoitzak **4.800 euro** jasoko ditu.

**Oinarriak hemen:**
**www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista**

## HAUTATUTAKO BI LANEN AURKEZPENA

### 2023ko maiatzak 15, astelehena

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania, azterlanaren hizkuntzaren arabera

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN GAINEKO MASTERRA
MASTER EN IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

# HE
# RRI
# HAN
# DI

## HERRI HANDIAREN HITZALDIAK, INFERNU TXIKI BATERAKO

Hitzaldi-ziklo honen bidez, planetako beste latitude batzuetan sortu diren diskurtsoak eta praktikak ekarriko ditugu Eskolara. Jarri diogun izenburua 'Herri txiki, infernu handi' / 'Pueblo pequeño, infierno grande' esamoldean dago inspiratuta (bertsio latinoamerikarrean, 'Pueblo chico, infierno grande' da). Esaera hori egiazkoa izateko aukera dagoenez (batez ere, emakumeentzat eta sexu- nahiz genero-disidenteentzat), abia dezagun "herri handiaren" elkartasuna, guztion askatasunak aldarrikatzeko orduan. Aurtengo Herri Handi hitzaldi-zikloak krisi ekologikoaren aurka borrokatzen diren mugaz gaindiko mugimendu feministei helduko die.

**Koordinatzailea:** Aitziber Pérez de Karkamo, kazetaria. Hedabide askeetan komunikatzen saiatzen naiz, betaurreko eta luma moreak jantzita. @halabedi eta @naiz_iritzia

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean






# REBELDÍAS ECOFEMINISTAS CONTRA EL PODER CORPORATIVO

HIZLARIAK: **Júlia Martí Coma**, OMALeko ikertzailea (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia) eta FeministAlde! ekimeneko aktibista ekofeminista
**Alicia Migliaro González**, UDELAReko irakaslea (Uruguai), ikertzailea, estentsionista, feminista eta militante soziala Uruguain

Nola deskonektatu gaitezke enpresa transnazionaletatik? Zer aukera daude enpresa horiei boterea kentzeko? Nola indartu ditzakegu erresistentziak? Eta nola zaintzen gara/dugu enpresen inpaktuei aurre egiteko? Hegoalde eta iparralde globaleko hiri- eta landa-eremuetatik megaproiektuen aurka, lan-esplotazioaren aurka, kutsaduraren aurka eta zorraren zein murrizketen aurka borrokatzen diren eta bizitza jasangarriak lortzeko alternatibak eraikitzen dituzten feministen, lurralde-defendatzaileen, ekologisten, antiarrazisten, nekazarien, sindikalisten... esperientziak partekatuko ditugu.

**2022ko urriak 25, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:**
Gaztelania



# GENOCIDIO CULTURAL EN LA SABANA BRASILEÑA Y LAS RESISTENCIAS DE LAS MUJERES

HIZLARIA: **Diana Aguiar**, Bahiako Unibertsitate Federaleko irakasle eta ikertzailea (Brasil) eta *Defensa del Cerrado* kanpaina brasildarrean laguntzailea

Hiru urteko prozesu baten ondoren, Herrien Auzitegi Iraunkorrak (TPP-Roma) Brasileko Estatua epaituko du 2022ko uztailean, Brasileko sabanan (Cerrado) egindako ekozidio-genozidio kulturalarengatik. Halaber, eskualdetik esportatzen diren nekazaritzako *commodity*-etatik etekina ateratzen duten atzerriko estatuen eta enpresa transnazionalen erantzukizun partekatua epaituko du. Testuinguru horretan, Cerradoko Emakumeen Antolakundeak salatu du ekozidio-prozesu horrek modu desproportzionatuan eragiten diela: beren gorputzak prozesuaren mendeko lurraldeak dira. Hori dela-eta, beren bizipenetatik abiatuta, erresistentziak eta proiektu emantzipatzaileak antolatzen dituzte.

**2022ko abenduak 20, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:** www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:** Gaztelania



# ECOCIDIO EN BUENAVENTURA. ASÍ SE PROVOCA LA POBREZA

HIZLARIA: **Danelly Estupiñán Valencia**, eskubide kolektiboen defendatzailea, ikertzailea, Vigia Afro Behatokiko baterako koordinatzailea eta Buenaventuran (Kolonbia) itsasoari irabazitako lurraldeak babesteko antolaketa-batzordeko kidea

Patriarkatuak (hots, desberdinkeria indartzen eta sakontzen duen egiturak) sistema kapitalista eta kontsumismoa integratu ditu, naturako ondasunak baliabide bihurtzeko. Naturako ondasunak gain-ustiatu egiten dira, eta, aldi berean, desjabetzen (ekozidioa), patriarka suizidek bobedetan (bankuetan) arretaz gordetzen dituzten billeteak ekoizteko. Billete horiekin, ordea, ezin daitezke gutxienekoak ere erosi.

Buenaventura Kolonbiako portu-hiri garrantzitsuena da, kapitala bizitzari nola gainjartzen zaion ikusteko adibide aparta.

**2023ko otsailak 28, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:**
Gaztelania



# DESPLAZAMIENTO FORZADO Y LUCHA POR LA VIDA EN MESOAMÉRICA

HIZLARIA: **Mariana Zaragoza**,
ikertzailea, feminista
eta migratzaileen giza
eskubideen defendatzailea

Erdialdeko Amerikako migratzaileen karabanei esker, pertsonek kolektibotasunean aurkitu zuten migrazio-mugimendu luzean ikusgai izateko eta ahots propioa edukitzeko modua. Ikuspegi ekofeministan oinarrituta, Erdialdeko Amerikaren iparraldeko eta Mexikoko bortxazko lekualdaketari buruzko kontu garrantzitsuenak jorratuko ditugu. Lekualdaketa horiek nazioarteko babesa behar duten pertsonengan dauzkaten inpaktu bereiziez hitz egingo dugu, eta pertsonek eta kolektiboek migrazioa gero eta gehiago kriminalizatzen den testuinguru batean zer-nolako bizi-praktikak gauzatzen dituzten ikusiko.

**2023ko martxoak 28, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**ONLINE**

**Sarrera librea hemen:**
www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Hizkuntza:**
Gaztelania

# HI TZAL DIAK





# FEMINISMOS A LA DERIVA EN LA CULTURA TERAPÉUTICA

HIZLARIA: **Laura Yustas Martínez,** ikertzailea, militante feminista (Valentziako Arada Memòria kolektiboa), Arte Ederretan doktorea (kulturaren soziologia kritikoa) eta herri-memoriari buruzko artxibo digitalen editorea, Valentziar Herrialdeko hainbat herritan.

DINAMIZATZAILEA: **Maider Domínguez Ibáñez**, Sorginenea

Kontsumo masiboan eta niaren adierazpen etengabean oinarritzen diren gizarteetan, emozionaltasuna eta zaurgarritasun terapeutikoa identitate-zeinu "ahalduntzaileak" bihurtu dira. Alabaina, banakako ahalduntzeak zer ekarpen egiten die borroka sozialei? Zergatik lotzen dituzte hainbestek antsietatea eta militantzia? Gaur egungo militantzia gogorragoa da, ala sentikorragoak gara? Psi diziplinak (psikoterapia, psikoanalisia, psikologia, psikopedagogia...) arazoaren zati dira, ala irtenbidearen zati?

**2022ko urriak 11, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

A25

# LA REACCIÓN PATRIARCAL: MACHOSFERA, MASCULINISMO Y ULTRADERECHA



HIZLARIA: **Marta Cabezas Fernández**, Gizarte Antropologiako doktorea eta Madrileko Unibertsitate Autonomoko ohorezko irakaslea La Laboratoria - Ikerketa Feministarako Guneak babesten duen 'Erantzun patriarkala' ikerketa-taldeko kidea da.

DINAMIZATZAILEA: **Miren Ortubay Fuentes**, Maria de Maeztu Forum Feministako kidea

Hitzaldi honetan, ekosistema patriarkalean barreiatuko gara, ekosistema hori mapatzeko, karakterizatzeko eta ultraeskuinak gora egitea ekarri duen osagai erabakigarritzat jotzeko. 'Matxosfera' deiturikoa askotariko aktoreen sare bat da, non misoginia eta androzentrismoa araua baitira, non gizonak zapalduta daudela baieztatzen baita eta genero maskulinoaren zoritxar guztien errua feminismoari (eta emakumeei) egozten baitzaio, egiturazko edozein irakurketa lausotzearekin batera. Magma horretan barreiatzea eta arrakalak identifikatzea ezinbestekoa da orainaldiko erronka politikoak feminismotik pentsatzeko.

**2022ko azaroak 8, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** Maria de Maeztu Forum Feminista



# *HABLEMOS CLARO* LIBURUARI BURUZKO AURKEZPENA

HIZLARIA: **Teresa Maldonado Barahona**, FeministAlde!-ko kidea eta Filosofiako irakaslea

DINAMIZATZAILEA: **Uri Ruiz de Bikandi**, Ilargi Betea taldeko kidea (Sorginenea)

Hizkuntza zaindu egin behar dugu, gizakiok hizkuntzaz eginda baikaude. Saio honetan, *Hablemos claro. Retórica y uso del lenguaje en el feminismo* liburuari buruz hausnartuko dugu, egilearekin batera. Bada, feministok erabiltzen dugun hizkeraren gaineko kezka du liburuak abiapuntu, hizkera hori askotan ulergaitza izaten baita jargoi feministan hasi ez direnentzat. Beste batzuetan, berriz, esamoldez, itzulinguruz eta egindako esaldiz gainezka egoten da, eta horrek ere ez du batere laguntzen pentsamendu feminista argitzen, ezta gizarte-kritikarako tresna gisa garatzen ere: feminismoak ulergarria izan behar du, eta, pentsamendu kritikoa den heinean, ezin ditu, besterik gabe, egindako esaldiak etengabe errepikatu.

BAIETZ ULERTU

**2022ko abenduak 13, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

**Laguntzailea:** Sorginenea



# FEMINISMOS DISIDENTES

HIZLARIA: **Itziar Ziga**, kazetaria, idazlea eta ekintzaile feminista

DINAMIZATZAILEA: **Eva Silván Miracle**, politologoa; Emakumeen Etxeko Solasaldi Feministen talde eragileko kidea

Beti konjuratu izan dut putaren estigma, baina tratu txarrak jaso dituenaren estigma da etortzen ikusi ez dudana, nahiz eta erraietan talka egiten didan, min handiz egin ere. Putaren estigmak emakume txar bihurtzen zaitu, desitxuratu egiten zaitu; biktimarenak, berriz, emakume etsi izatera makurrarazten zaitu. Gaztelaniaz, biktima eta puta terminoak femeninoan bakarrik erabil daitezke. Bada, beti eztenkatu izan nauen galdera oker honi egingo diot aurre: amak zergatik jasan zituen aitaren jipoiak? Bizitzaren alderik sutsu, sexy, aske eta dibertigarriena zabaldu nahi dut, guztiontzat.

**2023ko urtarrilak 10, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean



# PORNOGRAFÍA Y JUVENTUD: LA EDUCACIÓN SEXUAL COMO ALTERNATIVA

HIZLARIA: **María Rodríguez Suárez**, sexologoa eta Generoa eta Aniztasuneko doktorea. RIZOMA proiektu sexologikoa koordinatzen du, eta, sexuheziketako hainbat programatan prestakuntza emateaz gainera (Asturiasen), material didaktikoak eta dibulgaziozkoak egiten ditu

DINAMIZATZAILEA: **Reina Ruiz Bobes**, Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuko burua

Gazteak gero eta lehenago hasten dira pornografia kontsumitzen, eta gazteek maiz ikusten dute. Saio honetan, galdera batzuei erantzuten saiatuko gara: Pornoak zer-nolako sexualitate-eredua eskaintzen du? Nola aurkezten ditu gorputzak, erotikak, genero-rolak eta harremanak? Nola lagundu dezakegu, mezuak modu kritikoan interpreta daitezen? Proposamen honetan, 'pornoaren auzia' jorratuko dugu, heziketa sexual, mediatiko eta feminista emateak duen garrantzia erdigunean jarrita.

**2023ko otsailak 14, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean





M8

# SITUACIÓN ACTUAL Y RETOS EN EL EMPLEO DE HOGAR Y DE CUIDADOS

HIZLARIAK: **Rafaela Pimentel Lara**, etxeko eta zainketetako langilea duela 30 urtetik, Territorio Doméstico kolektiboko bozeramailea eta aktibista feminista
**Lorea Ureta Hernández**, ATH-ELEko militante aktibista duela 20 urte baino gehiagotik

DINAMIZATZAILEA: **ATHCA**, Etxeko eta Zainketetako Langileen Arabako Elkartea

Etxeko eta zainketetako enpleguaren lapikoari tapa kenduko diogu, eskubidedun zaintza duinak aldarrikatzeko. Sareak ehundu nahi ditugu, ikuspegi feminista eta antiarrazista batean oinarrituta, sistema publiko eta komunitario bat lor dezagun eta etxeko enpleguak gainerako lanbideen eskubide berberak izan ditzan. Sektoreko legediaren egoera aztertuko dugu, etorkizunera begirako erronkak eta egiteko dauden aldarrikapenak azaltzearekin batera.

**2023ko martxoak 14, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean



M17

# HORRELA TRATATZEN GAITUZTE... ETA HONELA TRATATU BEHARKO GINTUZKETE!

HIZLARIA: **Aitziber Pérez de Karkamo Herrán**, kazetaria. Hedabide askeetan komunikatzen saiatzen naiz, betaurreko eta luma moreak jantzita.

DINAMIZATZAILEA: **Amets Martínez de Heredita**, Ikusgune. Gasteizko LGTBI+fobiaren kontrako Behatokia

BAIETZ ULERTU

**2023ko maiatzak 9, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

Hitzaldi honetan, sexu- eta genero--aniztasunaren, LGTBI pertsonen eta LGTBIfobiaren tratamendu mediatikoa jorratuko dugu. Halaber, ikusezintasunari helduko diogu. "Hedabideetan agertzen ez dena ez da" esapidea maiz entzuten dugu, hedabideak ez direlako narratzaile hutsak: errealitatea eraikitzen dute. Hala, kolektibo jakin bat ikusezin egitea sekulako oztopoa da kolektibo horretako pertsonek bizitza duin eta beteak garatu ditzaten, eta, era berean, estigmarako eta diskriminaziorako iturria da.

Bi kontuak (sexu- eta genero-aniztasunaren berri egoki ematea eta aniztasuna ikusaraztea) giltzarriak dira, kazetaritza kalitatekoa, arduratsua eta pertsonekin nahiz gizartearekin konprometitua izan dadin.



# CUANDO LAS PERSONAS LGTBI SOLICITAN PROTECCIÓN INTERNACIONAL EN ESPAÑA...

HIZLARIA: **Nessrin El Hachlaf Bensaid**, abokatu aditua migrazioan, babesean eta gorroto-delituetan

DINAMIZATZAILEA: **Zehar-Errefuxiatuekin**

Saio honetan, sexu-joerarengatik eta genero-identitatearengatik Espainian nazioarteko babesa eskatzen dutenen migrazio-ekintzaren errealitatea jorratuko dugu, esparru juridiko eta sozialetik begiratuta. Aurrez aurre dituzten zailtasunez hitz egingo dugu, sarritan giza eskubideak urratzen baitizkiete, eta, halaber, administrazio publikoek migratzaile eta errefuxiatu LGTBI+ pertsonen harrera eta bizi-kalitatea hobetzeko orduan duten erantzukizunaz arituko gara.

**2023ko maiatzak 23, asteartea**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Baita *streaming* bidez ere: www.vitoria-gasteiz.org/JFE-zuzenean

# ARTE ESZENIKOAK



**HARTZAILEAK:** 12 eta 30 urte artekoak




A25

# "ONLINE EDOTA OFFLINE LIBRE IZAN NONAHI" TOPAKETA. (ZIBER)INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZEN ALDE

**2022ko azaroak 18, ostirala**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Montehermoso Kulturunea

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

Hainbat artista eta trebatzaileren laguntzarekin, (ziber)indarkeria matxistei buruz hitz egingo dugu, eta, guztion artean, (ziber)aktibismo feministako estrategiak ikasi eta partekatuko ditugu, indarkeria matxista horiei aurre egiteko.

Lantegiak egingo ditugu, eta zuzeneko musika egongo da! Ezin duzu huts egin!

Sareetan, kaleetan, diskoteketan edo dena delako tokietan indarkeria matxistarik gabeko bizitzak eraikitzen lagunduko dugu, guztion artean!

A25

# MORDIENDO LA VERDAD. RECUPERANDO LA HISTORIA DE LAS MUJERES



"Mordiendo la verdad" memoriari egindako kantu bat da, emakumeok ehundu eta mantendu ditugun bizitzak eta egunerokotasunak erdigunean jartzea eta ikusaraztea proposatzen duen alegatu ausarta.

Idatzi gabeko musika da, gure amen eta amonen ezpainetan gordetako lo-kanta.

Norberaren, iraganaren eta jatorriaren bilaketa da, matrizetik sustraietarakoa.

Baina, batez ere, beste aukera bat da. Isiltasun-itun baten amaiera...

Ireki den ate bat. Sartu eta distirarekin guztia urreztatzen duen argi bat.

Poesia, antzerkia, dantza, zuzeneko musika eta arte bisualak, intimoa bezain unibertsala den bidaia baterako.

Hain beldurtia ez den proposamen narratibo bat, guztiontzako bidezkoagoa.

» Zuzeneko musika
» Ikus-entzunezko ikuskizuna
» Gorrentzat eta itsuentzat irisgarria

**Gidoia eta jatorrizko ideia:** Alba Gil Menés

**Antzezleak:** Alba Gil Menés, Sandra Zamora, María Rodríguez Silva

**ZM Interprete taldea:** Loreto Martín, Julia García, Ángeles Talavera

**Ekoizlea:** Palomica Lloca Producciones

**2022ko azaroak 24, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Laguntzailea:** Maria de Maeztu Forum Feminista



# ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA

Mari Luz Estebanek honako hau dio *Andrezaharraren manifestua* liburuan:

> *'Ez diot uko egiten zaharra naizela aitortzeari. ZA-HA-RRA. Hitz hori letreiatzen dut astiro. Haren loditasuna dastatzen dut, haren sonoritatea. Hemen naiz. Begira nazazu'.*

Asmo horri jarraika, bost emakume, bost gorputz, bost andrezahar ikusiko ditugu oholtza gainean, haien sentimenduak dastatzen, publikoaren begiradaren aurrean agertzen. Bost dira... edo hamaika.

'Andrezaharraren manifestua' izeneko emanaldiak oholtzara ekartzen ditu liburuko poemak. Irakurketa-uneak eta poema bisual eta antzeztuak uztartu ditugu: biolinaren musika, pintura, antzerkia eta koreografia performatiboak modu umoretsu zein aldarrikatzailean tartekatu ditugu, emanaldi hunkigarria sortzeko.

**Konpainia:** Metrokoadroka kolektiboa

BAIETZ ULERTU

**2022ko abenduak 16, ostirala**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista




M8

# NO SOY TU GITANA

Ez naiz, ez, boteretsuen buruek (gizonek, *payoek*, katolikoek...) gure identitatea jazartzeko legeen bidez eta kultura nagusiak sustatutako fikzioaren bidez eraiki duten emakume ijito hori. Ez naiz ez Preciosa, ez Carmen, ez Esmeralda, ez Zemfira. Ezta telezaborraren bidez erakusten dizuten ijito hori ere.

Hautsi dezagun gizon *payoek* eraikitako sorgin-gurpil kaltegarri hori, gizon horiexek sortutako Preciosak, Esmeraldak, Carmenek eta Zemfirak hezur-haragizko benetako emakume ijitoak ezkutatzen baitituzte, botere liluragarri batekin. Pentsamendu kritikoak zoriontsuago egingo gaitu guztiok. Emakume ijitook 600 urte baino gehiago daramatzagu ijitoen aurkako legedi matxistari aurre egiten: gaur egungo borroka feministarako balio duten estrategiak garatu ditugu.

**Antzezlea:** Silvia Agüero

**Dramagileak:** Silvia Agüero eta Nüll García

**Zuzendaria:** Nüll García

**Aktore-lana:** Pamela Palenciano

**2023ko martxoak 2, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Beñat Etxepare antzokia (Iparralde gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



M8

# LOA LOA, LAGUNA

Diziplina anitzeko kontzertu performatiboa.

Ametsezko gau-paisaietan murgilduko gara, inkontzientea jardunean dabilen eta sentsualtasuna, besteak beste, presente dagoen gau-paisaietan.

Tradizioak ekartzen digun **antzinakoari** eta **berriari** –bizi ditudan errealitate berriei– buruz hausnartuko dugu.

Begiratu bat emango diogu belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, ikusten ez dena ere transmititzen baita.

**Sortzailea eta antzezlea:** Maider Lasa Santamaría

BAIETZ ULERTU

**2023ko martxoak 23, osteguna**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista




M17

# eRRe
# ALDARRI BAT BERTSOZ

Zer da burua gorputzik gabe? Bizitza heriotzarik gabe? Zer da natura kulturarik gabe? Eta emakumea, gizonik ez bada? Guztiak bi: bata bestearen muga eta definizio, beti.

Baina inoiz ez berdinetik berdinera.

Kategoriak erre ditzakegu, batak bestea erre beharrean?

Gauza jakina da jendartea, oro har, dikotomien edo binarismoen baitan antolatzen dela. Bada, mundua bereizteko eta jendea sailkatzeko baliatzen diren etiketok eskaintzen duten esparrua egokia izan daiteke norbere gorputza nahiz bertsolaritza zeharkatzen dituzten hainbat fenomenoren inguruan hausnartzeko. Baita sortzeko ere. Hortik abiatuta, dualismo hori haustea proposatzen du eRRek, bertsolaritzaren, antzerkiaren, musikaren eta poesiaren arteko mugak lausotuz.

**Pospoloak:** Haizea Arana, Oihana Arana, Aner Peritz eta Leire Varga

**Konpainia:** Lanku kultur zerbitzuak

BAIETZ ULERTU

**2023ko maiatzak 11, osteguna**

**Ordua:** 19:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



**2023ko maiatzak 20, larunbata**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte-etxea)

**Hizkuntza:** Katalana/ Gaztelania

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/ eskolafeminista

M17

# MAIO

Maio bakarkako urratsak ematen hasi da, Júlia Serrasolsas (Ginestà) ahizpa bikiarekin osatzen duen Akelarre taldearekin hazi ondoren (eta hazten jarraitzen du). Orain, Bartzelonako artistak bakarkako lehen diskoa atera du, 'Des dels marges', intimoa bezain erreala, zuzena bezain zintzoa.

# ZINE FO RUMA
## 3REN ARTEAN



**Koordinatzailea:** Helena González Estévez, Zinhezba kultur elkarteko zinema-programatzailea

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak

**Antolatzaileak:** Gasteizko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua, Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, BIZAN-Adinekoen Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua



# LA VIDA ERA ESO

**2022ko urriak 20, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak, 1. aretoa

Belaunaldi desberdinetako bi emakume espainiarrek topo egin dute Belgikako ospitale bateko logelan. Maríak (Petra Martínez) hainbat hamarkada daramatza han bizitzen, gaztetan emigratu baitzen; Verónica (Anna Castillo), ordea, duela gutxi iritsi da, Espainian inoiz aurkituko ez dituen aukeren bila.

Adiskidetasun bitxia sortuko da haien artean, eta, horren ondorioz, María Espainiaren hegoaldera itzuliko da, ohiz kanpoko misio batekin. Verónicaren sustraien bilaketa zena Maríaren barnealderako bidaia bihurtuko da: bizitza osoa auzitan jarriko du.

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** Gaztelania

**Urtea:** 2020

**Iraupena:** 109 min

**Herrialdea:** Espainia

**Zuzendaria:** David Martín de los Santos

**Generoa:** Fikzioa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



A25

# LINGUI

**2022ko azaroak 17, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak, 4. aretoa

Txaden, N'djamena hiriburuaren kanpoaldean, 15 urteko María alabarekin bizi da Amina. Bere munduak, dagoeneko nahiko hauskorra denak, behea joko du alaba haurdun dagoela jakiten duenean. Maríak oso argi dauka ez duela haurdunaldiarekin jarraitu nahi, nahiz eta abortua legeak bakarrik kondenatzen ez duen herrialde batean bizi.

BAIETZ ULERTU

**Jatorrizko bertsioa frantsesez eta arabieraz, euskarazko azpitituluekin**

**Zineforumaren hizkuntza:** Euskara

**Urtea:** 2021

**Iraupena:** 97 min

**Herrialdea:** Chad

**Zuzendaria:** Mahamat-Saleh HAROUN

**Generoa:** Fikzioa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



BAIETZ ULERTU

**Jatorrizko bertsioa hindiz, euskarazko azpitituluekin**

**Zineforumaren hizkuntza:** Euskara

**Urtea:** 2021

**Iraupena:** 93 min

**Herrialdea:** India

**Zuzendaria:** Rintu Thomas, Sushmit Ghosh

**Generoa:** Dokumentala

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

# WRITING WITH FIRE

**2023ko otsailak 23, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak, 4. aretoa

Prentsa-askatasunaren eta feminismoaren aldeko alegatu boteretsu eta beharrezkoa. Indiako emakume batzuen istorio inspiratzailea du oinarri: emakume horiek, guztiaren eta guztien kontra, emakumeak bakarrik zituen lehenengo egunkaria sortu zuten. Elkarrekin, ustelkeria politikoaren, mafien eta matxismoaren kontra borrokatu ziren, kasten sistema ankerrak irmo markatutako gizarte batean.



M8

# LIBERTAD

**2023ko martxoak 16, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak, 1. aretoa

Aspaldian, ez dute udako etxean topo egin, baina, aurten, Norak eta bere familiak Ángela amonarekin igaro dituzte azken oporrak. Bizitzan lehen aldiz, Norak ez du bere tokia aurkitzen: haurren jolasak kaskarrak iruditzen zaizkio, eta helduen elkarrizketak handi geratzen zaizkio. Askoz ere gehiago interesatzen zaio amona zaintzen duen Rosana emakume kolonbiarraren Libertad alaba nerabearen unibertsoa.

**Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz**

**Zineforumaren hizkuntza:** Gaztelania

**Urtea:** 2019

**Iraupena:** 104 min

**Herrialdea:** Espainia/ Belgika

**Zuzendaria:** Clara Roquet

**Generoa:** Fikzioa

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/ eskolafeminista



M17

# LIMIOR

**2023ko maiatzak 18, osteguna**

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Florida Zinemak, 1. aretoa

Ikuspegi autobiografikoa oinarri, Coraci Ruiz zuzendari brasildarrak jarraipena egin dio Noah seme nerabearen genero-trantsizioari. 2016tik 2019ra bitartean, elkarrizketak egin zizkion, identitatearen bilaketa sakon hura blaitzen zuten gatazkak, ziurtasunak eta ziurgabetasunak jorratzeko. Aldi berean, Coracik, umetatik ingurune aktibista eta feminista batean haziak, bere eraldaketa-prozesua bizi izan zuen: paradigma zaharrak hautsi zituen, beldurrei aurre egin zien, eta bere aurreiritziak desmuntatu zituen. Kontakizun pertsonal, eskuzabal eta zintzo batekin, generoaren, ezkontzaren, politikaren eta familien onarpenaren inguruko kontu sozial garrantzitsuak jarri ditu mahai gainean.

**Jatorrizko bertsioa portugesez, gaztelaniazko azpitituluekin**

**Zineforumaren hizkuntza:** Gaztelania

**Urtea:** 2020

**Iraupena:** 77 min

**Herrialdea:** Brasil

**Zuzendaria:** Coraci Ruiz

**Generoa:** Dokumentala

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

# IRAKURLE KLUBAK



**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

# FEMINIST AGENDA EUSKAL LITERATURAN IRAKURLE-KLUBA

KOORDINA-TZAILEA: **Gema Lasarte Leonet**, doktorea Literatur Zientzietan, eta irakaslea EHUko Literaturaren Didaktikan. Irakurzalea, literaturzalea eta hainbat liburu eta artikuluren egilea

Lantegi honetan, euskaraz idatzitako edo euskarara ekarritako literaturara hurbilduko gara, ikuspegi feminista batekin, emakumeak nahiz gizonak inplikatzeari begira, berdintasuna sustatuko duen autokontzientzia sortzeko asmoz. Saioetan, hainbat literatur testu aztertuko ditugu (trama, edukiak, adierazpideak, pertsonaiak eta abar). Erdigunean, emakumeak: emakumeak eta emakumeek idaztean nahita edo nahi gabe erabiltzen duten agenda.

**Hileko lehen asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara**

| 2022 | 2023 |
|---|---|
| **Urriak 5**<br>**Azaroak 2**<br>**Abenduak 2** (ostirala) | **Urtarrilak 11**<br>**Otsailak 1**<br>**Martxoak 1**<br>**Apirilak 5**<br>**Maiatzak 3** |

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
BAZKIDEEK: 4,80€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 8,00€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

# LA HORA VIOLETA IRAKURLE-KLUB FEMINISTA

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

KOORDINATZAILEA: **Begoña Etayo Ereña** aditua da genero-berdintasunean eta garapenerako lankidetzan, eta Maria de Maeztu Forum Feministako kidea da

Bioleta feminismoaren kolorea da, eta ordu bioleta, aldiz, ilunabarrarena. Ordu horretan, egunak eta gauak elkar besarkatzen dutenean, emakume-talde bat elkartuko gara, aldez aurretik irakurri dugun liburu baten inguruan askotariko iritziak elkartrukatzeko. Emakumeon kontzientzia kolektiboan murgiltzeko aukera eskaintzen diguten eleberri, saiakera eta iritzi-artikuluekin egingo dugu topo. Testu horien irakurketa pertsonal eta intimoekin ikastea da asmoa, baita gure lehen irudipena besteen ekarpenekin osatzea ere. Aldi berean, feminismoaren inguruko prestakuntza jasoko dugu, eta feminismoak gure bizitza nola aberastu dezakeen ikusiko.

**Hileko hirugarren asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara**

| 2022 | 2023 |
|---|---|
| **Urriak 19**<br>**Azaroak 16**<br>**Abenduak 21** | **Urtarrilak 18**<br>**Otsailak 15**<br>**Martxoak 15**<br>**Apirilak 19**<br>**Maiatzak 16**<br>(asteartea) |

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
BAZKIDEEK: 4,80€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 8,00€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

# IRAKURKETA OKERRAK, LECTURAS DESVIADAS IRAKURLE-KLUBA

KOORDINATZAILEAK: **Sejo Carrascosa López**, kuir aktibista eta Lumagorri ZATeko kidea, eta **Kristina Arteaga Baños**, literaturzalea eta feminista

Literatura izan da sexu- eta genero-aniztasunen errealitatea aske agertu eta aitortzeko gune urrietako bat. Proposatutako irakurketetan eta bidelaguntza-saioetan, hainbat literatur testu jorratu eta aztertuko ditugu. Testu horien tramak, edukiek, pertsonaiek eta garapenek, baina, zisheteronormatibitateari erantzuten ez dioten askotariko bizitzak, desirak eta gorpuztasunak izango dituzte erdigunean.

**Hilabeteko azken astearteetan, 18:30etik 20:30era**

| 2022 | 2023 |
| --- | --- |
| **Urriak 25** | **Urtarrilak 31** |
| **Azaroak 29** | **Otsailak 28** |
| **Abenduak 20** | **Martxoak 28** |
| | **Apirilak 25** |

**Tokia:** Ikusgune-Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako Behatokia (Pintore kalea 47)

**Hizkuntza:** Gaztelania / Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
BAZKIDEEK: 4,80€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 8,00€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**Laguntzaileak:** Udal Liburutegien Sarea eta Ikusgune

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# IRAKURKETA ERRAZEKO KLUB FEMINISTA

KOORDINATZAILEA: **Natalia Jiménez Guitian**, Euskadi Irakurketa Errazeko kidea

Istorioak partekatzeko eta irakurketaren bidez ahalduntze-prozesuak sustatzeko plazerarekin esperimentatuko dugu. Irakurle-klub inklusibo honek irakurketa errazeko materialak erabiltzen ditu, eta, bertan, ozen irakurtzeaz gain, istorioei buruz hitz egin eta hausnartuko dugu, ikuspegi feministatik abiatuta.

**2023ko urtarriletik maiatzera, asteazkenero, 18:00etatik 19:00etara**

**2023**

**Urtarrilak 11, 18 eta 25**
**Otsailak 1, 8, 15 eta 22**
**Martxoak 1, 9** (osteguna), **15, 22 eta 29**
**Apirilak 5, 12, 19 eta 26**
**Maiatzak 3 eta 10**

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik tokiak bete arte

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Urteko prezioa:**
BAZKIDEEK: 4,80€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 8,00€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

# IKAS TA ROAK

# LAN TE GIAK



**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

# HIRIGINTZA FEMINISTA

TREBATZAILEAK: **Blanca Valdivia Gutiérrez** eta **Roser Casanovas**
COL·LECTIU PUNT6
hainbat tokitako emakume arkitekto, soziologo eta hirigileen kooperatiba, zeinak 10 urtetik gorako eskarmentua baitu tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan

Lantegi honetan, hirigintza feminista zer den eta hiriaren analisian nola zehazten den jakiteko hausnarketa- eta prestakuntza-prozesua abiatuko dugu. Premiak, helburuak eta estrategiak identifikatuko ditugu, Gasteizen modu propositiboan eragin ahal izateko. Tresna teoriko eta praktikoak emango ditugu, eremu honetan modu autonomoan lan egiten eta praktikan eragiten jarraitu ahal izateko.

**2022ko urriak 7 eta 8**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 1era

**Informazioa eta izen-emateak:** emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city

**Prezioa:** Doako jarduera

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# CHI KUNG-AREN HASTAPENAK

TREBATZAILEA: **Idoia Eizmendi Aldasoro**, berdintasuneko teknikaria, kazetaria eta mugimendu feministako kidea

Chi Kung praktikara hurbilduko gara: Chi Kung sistema Txinako medikuntza tradizionalean oinarritzen da, eta osasun fisiko nahiz emozionala hobetzea du helburu. Ariketa arinen, arnasketaren eta arreta osoaren bidez, teknika honek gorputzaren gaineko kontzientzia hartzen, bizi-energia areagotzen, estresa murrizten, gorputz-egitura hobetzen eta emozioak orekatzen laguntzen digu.

BAIETZ ULERTU

**2022ko urriak 17 eta 24 eta azaroak 7, 14, 21 eta 28**

**Ordutegia:** Astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 10era

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 11,64€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 19,44€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:** Umetan sexu-indarkeria jasan duten 16 urtetik gorakoak, profesionalak edo gai honetara errespetutik hurbildu nahi dutenak

**HIRU ATAL DITU:**

LEHENENGOA: **2022ko urriak 19 eta 26, asteazkenak biak**, 16:00etatik 20:00etara

BIGARRENA: **2022ko azaroak 16 eta 23, asteazkenak biak**, 17:00etatik 20:00etara

HIRUGARRENA: **2022ko abenduak 14 eta 21, asteazkenak biak**, 17:00etatik 20:00etara

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 12ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 19,40€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 32,40€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

# HITZ TROKATUAK: HAURTZAROKO SEXU-ABUSUEN INGURUKO IKUSPEGIAK

TREBATZAILEA: **Susanna Minguell Alonso**, filosofoa eta idazlea. 'Palabras dislocadas' liburuaren egilea

Ikastaro hau haurtzaroko sexu-abusuen sentsibilizazioan, ikusgaitasunean eta politizazioan oinarritzen da, biktima-biktimario logikatik harago. Segurtasun-gune bat sortzea da asmoa, bertaratzen direnek eroso parte hartu eta kezkak azaldu ahal izan ditzaten. Haurtzaroko sexu-abusuak politikoki ulertzera eta sexu-abusuak jasan dituztenak ahalduntzera bideratuta dago.

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# NIRE GORPUTZA GUDU-ZELAI BAT DA

TREBATZAILEA: **Irati García**, ikertzaile independentea, emakume lodia eta feminista

Posible al da feminista izatea eta konplexuak edukitzea? Uko egin al diezaiekegu edertasun-kanon matxistei eta, hala ere, ziurgabetasunekin jarraitu? Nahikoa al da neure burua maitatzea? Eta zer gertatzen da, nire gorputza osasun-arazo bat dela sentitzen badut?

Lantegi honetan, gai horiei buruz hausnartzen saiatuko gara. Gorputz-bizipena landuko dugu, edertasun-kanonei, dietaren kulturari eta lodifobiari dagokienez, eta erresistentzia-tresna berriak bilatzen ahaleginduko gara.

**2022ko urriak 20, azaroak 10 eta abenduak 15; 2023ko urtarrilak 18** (asteazkena)**, otsailak 8** (asteazkena)**, martxoak 9, apirilak 13 eta maiatzak 11**

**Ordutegia:**
Ostegunetan, 17:30etik 19:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:**
2022ko irailaren 1etik urriaren 13ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 15,52€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 25,92€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

BAIETZ ULERTU

**2022ko urriak 21**

**Ordutegia:** Ostirala, 17:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 14ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 2,91€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 4,86€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

# PERREO FEMINISTA

TREBATZAILEA: **Inés Lasagabaster**, esku-hartze sozialeko psikologoa, genero-berdintasuneko prestakuntza duena, eta, tarte libreetan, dantzaria

Twerk edo regetoia bezalako dantzek boteretsuago eta seguruago sentitzeko tresna izateko balio dezaketela ikusiko dugu. Feminitatearen eta sexualitatearen eraikuntzaren gainean hausnartuko dugu, baita horrelako dantzak irakasten dituzten gune feministen eraginei eta guneok gizarte-eraldaketari egiten dioten ekarpenari buruz ere.

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# ZINEMA ADITU: BEGIRADA ETA ENTZUMENA ARTATUZ

TREBATZAILEA: **Maider Oleaga**,
zinemagilea eta irakaslea

Ikus-entzunezko irudiz eta irudi zinematografikoz jositako errealitatea bizi dugu, eta irudiok munduaren, gizartearen eta geure buruaren inguruan dugun begirada mugatzen dute. Errealitatea irudikatzen duten irudiok ideologiaz (ideologia patriarkal, kapitalista, kolonialaz...) gainezkatuta daude, eta gure nortasuna eta nahiak eratzen dituzte. Gauzak horrela, diskurtso horiek berrirakurtzen ikasi behar dugu, geure burua ikus-entzunezkoen jazarpenetik defendatu ahal izateko begirada kritiko eta premiazko bat eraiki dezagun eta inspiratu, poztu, elikatu eta ahaldunduko gaituzten beste irudikapen posible batzuk, beste zinema batzuk eta beste begirada batzuk aurki ditzagun. Lantegi honetan, batez ere, film esanguratsuak ikusiko ditugu, gero guztion artean komentatzeko. Filma eraikitzeko erabili diren estrategiak eta hartu diren erabakiak argitzea da helburu orokorra.

**2022ko urriak 27, azaroak 17 eta abenduak 22**

**Ordutegia:**
Ostegunetan,
17:30etik 20:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:**
2022ko irailaren 1etik urriaren 20ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 8,73€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 14,58€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:** Esku-hartze sozialeko profesionalak, indarkeriari arreta emateko zerbitzu publikoetako eta gizarte-zerbitzuetako teknikariak, politika publikoetarako aholkulariak eta arduradunak; aktibistak eta gizarte-mugimenduetako kideak

**2022ko azaroak 4 eta 5**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 28ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 7,76€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 12,96€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

A25

# INDARKERIA MATXISTA AZTERTZEKO ETA ERANTZUN KOLEKTIBOAK ERAIKITZEKO GAKOAK (Sakontze lantegia)

TREBATZAILEA: **Laura Macaya Andrés**, genero-indarkeriaren inguruko politika publikoetan eta zuzeneko arretan aditua

Eskolaren aurreko edizioetan izenburu berarekin egindako lantegien jarraipena da honako hau. Genero-indarkeriak jorratzeko dauden esparruak birpentsatu egin behar dira, ikuspegi intersekzional ez-punitiboetatik eta ahalduntzaileetatik abiatuta birpentsatu ere. Horretarako, ezinbestekoa da fenomenoaren konplexutasuna aintzat hartuko duten eta logika neoliberalak nahiz premiazkoak errepikatuko ez dituzten tresnak izatea hala analisirako, nola esku-hartzerako. Lantegi honetan, elkarrekin egingo dugu lan, genero-indarkeria jorratzeko estrategia espezifikoak pentsatu eta garatzeko xedez. Estrategia horiek ahaldundu egin beharko dute, eta prestakuntza nahiz tresna emantzipatzaileak eskaini beharko dizkiete komunitateei, erakundeei eta oinarrizko kolektiboei.

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

# ZURRUMURRUEN AURKA, GENERO-IKUSPEGIAREKIN

TREBATZAILEAK: **Maya Amrane**, Biltzen-Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskadiko Zerbitzua
**Cony Carranza Castro**, herri-hezitzaile feminista

Saioan, zurrumurruen aurkako estrategian genero-ikuspegia txertatzeko elementu kognitibo eta metodologiko batzuk jorratuko ditugu. Bi zati edukiko ditu:

- Lehenengoak dimentsio kognitiboari helduko dio, eta erreferentziazko esparru kontzeptual bat zehaztuko du. Hala, migratzaileei eta gutxiengo kulturaletako kideei eragiten dieten estereotipoen eta zurrumurruen funtzionamendua eta ondorioak (gizartean eta politika publikoen gaineko ondorioak) aztertuko ditugu, generoaren araberako bereizketa eginez.
- Bigarren zatia dinamika parte-hartzaileen bidez garatuko da, hasierako jardun-ildo batzuk identifikatu eta proposatzeko helburuz.




**2022ko azaroak 9**

**Ordutegia:** Asteazkena, 16:30etik 20:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik azaroaren 2ra

**Informazioa eta izen-emateak:** emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

**HARTZAILEAK:**

**1. LANTEGIA:**
Gaixotasun mentala daukaten 17 eta 30 urte bitarteko gazteak

**2. LANTEGIA:**
Gaixotasun mentala daukaten helduak

1. LANTEGIA:
**2022ko azaroak 10**

2. LANTEGIA:
**2022ko azaroak 17**

**Ordutegia:** Ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** ASAFES-Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkartea

# SEXUALITATE OSASUNGARRIA ETA ANIZTASUNA

TREBATZAILEA: **EMAIZE** sexologia-zentroa

Lantegi teoriko-praktiko honetan, harreman afektiboekin eta sexualitate osasungarriarekin, autoezagutzarekin, bikoteko rolekin, maitasun erromantikoaren mitoekin, praktika arriskutsuekin eta sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako kontzeptuak jorratuko ditugu.

**HARTZAILEAK:**
Down-en sindromea daukaten 21 urtetik gorakoak

# DOWN POWER

TREBATZAILEA: **Lourdes Pérez Jiménez**, EMAIZEko sexologoa

Down-en sindromea duten neska--mutilek maila afektibo eta sexualean dauzkaten ahalmenak ikustea eta ahalmen horiek baloratzen edota bizitzen ikastea da lantegi honen helburua. Aldi berean, emozioekin bat egitea, haiek identifikatzea eta arlo pertsonalean nahiz harremanen eremuan nola eragiten diguten ikustea da asmoa, gure esku dauzkagun gaitasunez jakitunago izan gaitezen.

**2022ko azaroak 11, 18 eta 25**

**Ordutegia:** Ostiraletan, 10:30etik 12:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Down Araba-Isabel Orbe Elkartea

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

A25

# MAITASUNEAN PENTSA DAITEKE? GURE HARREMANETAKO INDARKERIARI HARIAK ATERATZEN

TREBATZAILEA: **Laura Latorre Hernando**, gizarte-hezitzailea, terapeuta narratiboa, idazlea eta aktibista feminista

Lantegi honetan, zalantzan jarriko dugu gure harremanak idealizatzen dituen eta agindu nahiz arauekin gogaitzen gaituen maitasunaren eraikuntza kulturala. Horretarako, bizi dugun testuinguru heteropatriarkal eta kapitalistan naturaltzat eta unibertsaltzat jotzen diren ereduei buruz hausnartuko dugu, taldean. Maitasunari buruzko diskurtso horiez bestelako kontakizunak partekatzeko gune bat sortu nahi dugu, indarkeriatik urrundutako harremanetaranzko migrazioan lagundu diezaguten.

**2022ko azaroak 11 eta 12**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik azaroaren 4ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 7,76€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 12,96€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

A25

# DENBORA ETA ESPAZIOA HEZKUNTZAN. IKASLEEN GURASO ELKARTEEN PROPOSAMEN HEZKIDETZAILEAK

**HARTZAILEAK:** IGE-etan parte hartzen dutenak eta interesa duen edonor

TREBATZAILEAK: **Amelia Barquín López**, HUHEZIko ikertzaile-irakaslea kulturarteko hezkuntzan, hizkuntzaren erabileran eta generoa eta hezkuntzan
**Eider Hermoso Larzabal**, Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU

Ikasleen guraso elkarteek (IGE) nola eragin dezakete, esku hartzeko duten eremutik jardunda, praktika hezkidetzaileagoak sor daitezen? Metodologia dinamiko eta parte-hartzaile baten bidez, hezkidetzaren proposamen teorikoak eta ikastetxeetako egunero praktika konbinatuko ditugu.

Honako gai hauekin lotutako alderdiak jorratu ahalko ditugu: eskolaz kanpoko jarduerak, nesken ahalduntzea, jolastoki hezitzaileak, nesken bokazio tekniko eta zientifikoa, heziketa afektibo-sexuala, indarkeria matxistaren prebentzioa eta abar.

Hausnartu egingo dugu, esperientziak partekatuko ditugu, eta IGE-en jardun-eremuan praktika hezitzaileetan aurrera egiteko tresnak eskuratuko ditugu. Erronka nagusiei erantzungo dieten estrategiak elkarrekin kontrastatu eta eraikitzeko gune bat sortuko dugu.

BAIETZ ULERTU

**2022ko azaroak 19**

**Ordutegia:** Larunbata, 09:30etik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik azaroaren 12ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Hezkuntza Zerbitzua

'Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea' programaren barruko jarduera

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

**2022ko abenduak 1**

**Ordutegia:** Osteguna, 18:00etatik 19:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania / Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik azaroaren 24ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Antolatzailea:** UNRWA Euskadi

# LIBANON ERREFUXIATUTAKO EMAKUME PALESTINARRAK EZAGUTZEN: 'AHLAM, BIZITZA BATEKIN AMESTUZ'

'AHLAM: bizitza batekin amestuz" komikiaren bidez, Libanon errefuxiatutako lau emakume palestinarren benetako istorioak ezagutuko ditugu, baita errefuxiatuak eta emakumeak izateagatik aurrez aurre dauzkaten egoera zailak ezagutu ere.

Libanon errefuxiatutako emakume palestinar bat izango dugu gurekin, eta lehenengo pertsonan kontatuko digu nolakoa den Libanoko errefuxiatuen kanpamentu batean jaio eta bizitzea.

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

TREBATZAILEA: **Miriam Ocio Sáenz de Buruaga**, psikologoa eta komunikazioan eta generoan aditua

Ideia bat adierazten jakitea ideia bera bezain garrantzitsua da. Lantegi honetan, komunikazio-prozesua zertan datzan, bertan zein elementu sartzen diren eta gure beldurrak zein diren ikusiko dugu. Kontu horiek ezagututa eta entrenamendu pixka batekin, jendaurrean hitz egiteko teknikak eskuratuko ditugu, ikus-entzuleak nahiz egoera bera kontuan hartuta. Generoak komunikatzeko orduan nola eragiten duen hausnartuko dugu.

**2023ko urtarrilak 12, 19 eta 26 eta otsailak 2, 9 eta 16**

**Ordutegia:**
Ostegunetan, 17:30etik 20:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:**
Gaztelania

**Izen-emateko aldia:**
2022ko irailaren 1etik 2023ko urtarrilaren 5era

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 17,46€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 29,16€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

# AUTODEFENTSA FEMINISTA (GAZT)

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

TREBATZAILEA: **Maitena Monroy Romero**, fisioterapeuta eta emakumeen aurkako indarkerian aditua

Lantegi honetan, gure iruditerien eraikuntza aztertuko dugu, eta, horrekin, baita gure harremanen eraikuntza ere. Sexu-indarkeriaren adierazpenak eta berdintasun-gabezia sustraitzen duten zutabeak (izu sexuala, ikasitako babesgabetasuna, maitasun erromantikoa) identifikatuko ditugu.

Agerian jarriko dugu sistemak nola desboteretzen gaituen, eta teknika kognitibo, fisiko eta emozionalak landuko ditugu, norbera zein taldea ahalduntzeko. Horretaz gain, indarkeria materialeko egoerei aurre egiteko zenbait baliabide eta teknika ikasiko ditugu.

| 1. LANTEGIA | 2. LANTEGIA |
|---|---|
| **2023ko urtarrilak 20 eta 21** | **2023ko martxoak 3 eta 4** |
| **Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia | **Tokia:** Salburua gizarte-etxea |
| **Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko urtarrilaren 13ra | **Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko otsailaren 24ra |

**Ordutegia:**
Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era

**Hizkuntza:**
Gaztelania

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 11,64€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 19,44€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# ESKURA ETA BAIMENIK GABE

TREBATZAILEA: **Tania Cañas Siriany**, Hegoaldetik Enarak Kooperatiba

Hegemonikoak ez diren feminismoei, dekolonialitateari, antiarrazakeriari eta pribilegioen sistemari buruzko laborategi feminista.

Geure burua deskolonizatzea eta gure esparru teoriko eta praktikak berrikustea PROZESU bat dela uste dugu. Prozesuari elkarrekin, 'eskura' eta mantso ekitera gonbidatzen zaituztet. Nork bere estiloan, prosan edo neurtitzetan berridatziz eta heteropatriarkatu kapitalista eta arrazistaren 'baimenik gabe', baina geure onarpen osoarekin eta borroka kolektiborako eta aliantza feministetarako banakako eraldaketek ematen duten indarrak bultzatuta.

**2023ko urtarrilak 21, otsailak 4 eta 18 eta martxoak 4**

**Ordutegia:** Larunbatetan, 10:00etatik 13:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko urtarrilaren 14ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 13,58€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 22,68€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

# AUTODEFENTSA FEMINISTA (EUS)

**2023ko otsailak 3, 10, 17 eta 24**

**Ordutegia:** Ostiraletan, 17:30etik 20:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko urtarrilaren 27ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 11,64€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 19,44€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

TREBATZAILEA: **Esther López Monge**, Safo Eskolaren sustatzailea eta neskei, emakumeei eta transei zuzendutako proiektu ugariren sustatzaile eta ohiko kolaboratzailea

Emakume izateagatik bizi ditugun indarkeriazko bizipenak partekatzeko gunea, elkarri entzuteko eta askotariko beldurrez eta emozioez hitz egitekoa. Autodefentsa feminista izango dugu oinarri; hau da, geure buruarenganako ulermena eta maitasuna. Taldean egingo dugu lan, askotariko indarkeria-egoerak eta erasotzeko moduak identifikatzen ikasteko eta, azkenik, indarkeriaren definizioa adosteko. Erasoei aurre egiteko estrategiak garatzeko orduan, autodefentsa feministako jarrera izatea proposatzen dugu.

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

M8

# "PIONERAS // AITZINDARIAK" DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

SOLASALDIA: **Inge Mendioroz**, dokumentalaren zuzendaria, eta **Jone M. Hernández**, AFIT - Antropologia Feministako Ikerketa Taldeko kidea

Ikus-entzunezko lan honen protagonistak erreferente garrantzitsuak izan dira Estatuan antropologia feminista garatzeko orduan. Dolores Juliano, Teresa del Valle eta Verena Stolcke trantsizioaren garaietan iritsi ziren, itxaropenez eta borrokatzeko hainbat alderdiz jositako testuinguru batean. Beren ahotsen bidez, beren esperientziak bildu nahi izan ditugu, haiekin geure burua aberasteko, bai orain, bai antropologo feministen etorkizuneko belaunaldietan.

BAIETZ ULERTU

**2023ko martxoak 10**

**Ordua:** Ostirala, 18:00etan

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor (entzuleak eta gorrak)

M8

# EMAKUME GORRAK TOKIAK KONKISTATZEN. UTOPIA ERREALITATE

**2023ko martxoak 11**

**Ordutegia:** Larunbata, 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** EZH eta gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 4ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Arabako Gorrak

SOLASALDIA: **Marta Muñoz Sigüenza**, Zuzenbidean graduatua; **Paloma Soroa Sainz**, doktorea Kazetaritzako Ikerketan; **Laura Díaz González**, zinemagilea; **Soledad Zapardiel Robles**, biokimikaria; **Naiara Larrakoetxea Salgado**, Politika eta Administrazio Zientzietan graduatua

DINAMIZATZAILEA: **Kizkitza Velasco Arnaiz**, Arabako Gorrak

Bost hizlari: emakumeak, gorrak eta zeinatzaileak. Ikuspegi feministatik abiatuta, legitimoki dagokien tokian kokatuko dituzte emakume gorrak, eremu profesionalean genero-azterketa eginez. Azpimarragarriena? Zeinu-hizkuntzan egingo dute aurkezpena, mintzaira ezberdin eta gutxitua bada ere beren mezuei sinesgarritasunik kentzen ez dielako. Gainera, zeinu-hizkuntzak are gehiago ahalduntzen du.

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

M8

# BI ZI. BISEXUALITATEA GERALEKU ETA (EZ) GELTOKI

TREBATZAILEAK: **June Fernández Casete**, kazetaria, aktibista feminista eta LGTBa, eta **Olatz Artola Apeztegia**, feminista, bisexuala, euskalduna eta gauza askoren zalea

Bisexualitatea ez da normatiboa, eta arauz kanpo dagoena ez da onartzen. Onartu dezagun, baina, bisexualitatea aukera bat dela, beste hainbat aukeren arteko bat, eta bisexualitatea bera bizitzeko hamaika modu daudela. Horren erakusleiho da BIZI proiektua. Lantegi honetan, proiektuan jasotakoa partekatuko dugu (hitzez zein ikus-entzunezkoen bidez), eta, ondoren, gure artean ideiak, bizipenak, sentsazioak... elkarbanatzea eta horiei buruz eztabaidatzea izango da helburua, aurreiritziak deseraikitzeko, komunitatea indartzeko, bisexualitatea bizigarri egiteko.

BAIETZ ULERTU

**2023ko martxoak 17**

**Ordutegia:** Ostirala, 18:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 10era

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**HARTZAILEAK:**
Emakumeak

M8

# HORIEK BARREAK Umore-lantegia, ikuspegi feministatik

**2023ko martxoak 18**

**Ordutegia:** Larunbata, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 11ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 5,82€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 9,72€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

TREBATZAILEAK: **Beatriz Egizabal Ollokiegi**, umoregilea, klown-a eta feminista
**Paki Caballero Martín**, aktorea, pailazoa, performer-a eta feminista

Emakume hori barrez ari da beti. (Ez da arduratsua izango)

Emakume horrek ez du inoiz ere barre egiten. (Ozpinduta egongo da)

Emakume horrek guztiarekin egiten du barre. (Tuntun samarra izango da)

Emakume horrek ez du ezerekin ere barre egiten. (Handiustea izango da)

Emakume horrek graziosa dela uste du. (Baina emakumeak ez dira umoregile onak)

Gustuko dut emakume horren umorea. (Ez du emakumea ematen)

Arduragabeak, ozpinduak, tuntunak, handiusteak, umoregile kaskarrak, emakumeak ez direnak... ongietorriak izango dira lantegi honetan. Elkarrekin egingo dugu barre: hasteko eta behin, geure buruari.

**HARTZAILEAK:**
BIZAN sarearen erabiltzaileak eta interesa duen edonor

M8

# ADINEKO EMAKUMEEN GORPUTZA BIRPENTSATZEN

TREBATZAILEA: **Mari Luz Esteban Galarza**, feminista eta EHUko irakaslea

Gizarteak gazteen edertasunaren inguruan eraiki duen iruditeria oztopoa da adineko emakumeak beren gorputz eta irudiarekin identifikatzeko. Hortaz, gorputza baloratzeko bestelako moduak hedatu behar ditugu, gizarteko kanonetatik harago doazenak. Aukera horiek norberaren gorputzean bizi-aztarnak eta eskarmentua hautematea ahalbidetu behar dute, bai eta adineko emakumeak gizartean egotea eta beren historiaren subjektu izatea ere.

**2023ko martxoak 21, asteartea**

**Ordua:** 18:00

**Tokia:** CIAM San Prudentzio (Frantzia kalea 35)

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko martxoaren 14ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista
- BIZAN sarea

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** BIZAN sarea. Virginiaren logela (Adinekoen Zerbitzua)

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

# ALMENDRAKO IBILBIDEA. IKUSARAZI BEHARREKO HISTORIA: EMAKUMEAK GASTEIZEN

GIDA: **Kalearte**, Turismoa eta Kultura

Ikerketa historikoetan, emakumeek gizarteari egindako ekarpena isilpean geratu da. Hala, ekarpen hori ikusgarri egin eta baloratzea izango da ibilbide honen helburua, eta, horri begira, Gasteizen hainbat eremutan (hala nola, hezkuntzan, kulturan, ikerketan eta politikan) eginkizun garrantzitsua izan zuten emakumeekin zerikusia daukaten tokietara joango gara. Horrela, historia modu kritiko eta zorrotzagoan irakurri ahal izango dugu, eta garai ezberdinetan hirian bizi izan zirenen errealitatera hurbildu.

| 1. TALDEA | 2. TALDEA |
| --- | --- |
| **Apirilak 15** | **Apirilak 16** |
| **Ordutegia:** Larunbata, 11:00etatik 13:30era | **Ordutegia:** Igandea, 11:00etatik 13:30era |
| **Hizkuntza:** Gaztelania | **Hizkuntza:** Euskara |

BAIETZ ULERTU

**Topalekua:** San Migeleko balkoia

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko apirilaren 8ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Antolatzailea:** Hezkuntza Zerbitzua

'Gasteiz Hiri Hezitzailea' programaren barruko jarduera

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

M17

# BADATOR KUIRRA!

TREBATZAILEA: **Sejo Carrascosa López**, kuir aktibista eta Lumagorri ZATeko kidea

Asko hitz egiten da kuirraz: kuirrak familia desagerraraziko duela, eskoletan 'genero-ideologia' sarrarazi nahi duela, emakumeak ezabatzeko nazioarteko konspirazioa dela, proxeneten talde bat dela... Baieztapen horien atzean (gehienak sare sozialetan egiten dira), ezjakintasuna eta beldurra ezkutatzen dira. Izan ere, kuirraren atzean generoaren eta sexuaren gainean dugun pertzepzioa aldatu, aniztasunaren inguruko politikak auzitan jarri eta politika horiek eratzen dituzten egitura eta legeak problematizatzeko asmoa duten teoriak, praktikak, gorputzak eta identitateak daude. Ikuspegi feminista intersekzional batetik abiatuta, zapalketa-ardatzak hierarkizatuko ez dituzten politikak egituratzeko erantzun kolektibo eta haragitu gisa sortu da kuirra.

Prestatu zaitez, kuirra badator-eta!

**2023ko maiatzak 3 eta 10**

**Ordutegia:** Asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko apirilaren 26ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Lumagorri ZAT

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

**2023ko maiatzak 5 eta 6**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko apirilaren 28ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 7,76€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 12,96€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

M17

# ZER EGIN DEZAKEGU TRANS* NERABEEN BIZITZA HOBETZEKO?

TREBATZAILEA: **Noemi Parra Abaúnza**, doktorea Genero Ikasketetan eta Gizarte Laneko irakaslea ULPGC unibertsitatean

Gaur egun, transa ulertzeko esparru tradizionalak aldatzen ari dira, eta, nerabezaroan, esparru horien konplexutasunak are agerikoagoak dira. Lantegi honetan, elkarri lotutako bi kontu jorratuko ditugu: batetik, nerabezaroan genero-esperientzia nola eratzen den ulertuko dugu, eta, bestetik, bidelaguntza-ereduak berrikusiko ditugu. Honako galdera honek mobilizatzen du mapaketa hori: Zer egin dezakegu trans* nerabeen bizitza hobetzeko?

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

M17

# TRANS IDENTITATEAK ETA MIKROZISEXISMOAK

TREBATZAILEA: **Mar Cambrollé Jurado**, Trans Federazio Plataformako presidentea eta LGTBIQ eskubideen aldeko aktibista historikoa

Ikastaro honetan, trans identitateez mintzatuko gara, transok giza talde homogeneo bat osatzen ez dugula ikusarazteko: transak adina modu daude trans izan eta bizitzeko. Aniztasunaren adierazpena gara, eta, zentzu horretan, heterogeneoak.

Ikusiko dugunez, ez gara ez fenomeno garaikide bat, ez moda bat, gizaterian hasiera-hasieratik egon baikara. Hizkuntza egoki erabiltzeak duen garrantziari buruz hitz egingo dugu, hizkuntza zapalketei aurre egiteko eta ahalduntzen laguntzeko tresna izan baitaiteke edo, kontrara, hizkuntza gaizki erabiltzeak diskriminazioak betikotu baititzake. Halaber, mikrozisexismoen sotiltasunak aztertuko ditugu, mikromatxismoen eginkizun berbera daukatelako: iruditeria kolektiboan sartzea transa gutxiago dela edo naturala ez dela.

**2023ko maiatzak 12 eta 13**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko maiatzaren 5era

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 7,76€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 12,96€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**Laguntzailea:** Lumagorri ZAT

**HARTZAILEAK:** Interesa duen edonor

M17

# IMPRO LGTBIQA+

**2023ko maiatzak 19 eta 20**

**Ordutegia:** Ostiralean 16:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko maiatzaren 12ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 7,76€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 12,96€
LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

TREBATZAILEAK: **Zahira Montalvo**, Arte Dramatikoan lizentziaduna, animatzaile soziokulturala, gizarte-hezitzailea eta indarkeria matxistan espezializatutako terapeuta
**Elba Ruiz Morales**, diziplina anitzeko artista, aktore inprobisatzailea, animatzaile soziokulturala eta ospitaleko pailazoa

Antzerki desberdin baterako gogoa duzu? Identifikatuta sentitzeko istorio inprobisatuetarako gogoa? LGTBIQA+ INPRON, sexu- eta genero-aniztasunari begirunez begiratuko dioten jolas eszenikoak proposatuko dizkizugu: aske hitz egiteko zaintza-gune bat, antzerkiko inprobisazioak ematen dizkigun freskotasunaz eta barreaz gozatzeko eta partekatzeko toki bat, sormen kolektibo eta iragankorraren artea esperimentatzeko leku bat. Sormen ausart, zoro eta askearen bidez arauzko rolak desegituratzeko gonbidapena da hau.

# #FeminismoanItzel



**HARTZAILEAK:** Koldo Mitxelena ikastetxeko 15 eta 18 urte arteko ikasleak

# #FEMINISMOANITZEL IRAKURLE-KLUBA

KOORDINATZAILEA: **Kristina Arteaga Baños**, irakurzalea eta feminista

Hilabetean behin elkartuko gara, liburu bat irakurtzeko. Emakumeek idatzitako gazte-literatura izango dugu erdigunean (euskaraz idatzitakoa nahiz euskarara ekarria), emakume idazleak ikusaraztearekin bat emakume horiek jorratzen dituzten gaiak, kezkak eta unibertsoak ezagutzeko.

Dena dela, literatura ez da bakarrik egongo, feminismoa izango baitu ondo-ondoan, gainean eta azpian, begirada morez irakurtzen saiatuko baikara, eta gure hitzak, iritziak, kezkak eta abar mingain eta belarri morez blaitzen hasi, ingurune hurbil eta konfiantzazkoan.

**Asteazken bat hilean, 2022ko urritik abendura**

**Ordutegia:** 2 orduko saioak, arratsaldez, ikastetxearekin zehazteko

**Tokia:** Koldo Mitxelena BHI

**Hizkuntza:** Euskara

**Laguntzailea:** Koldo Mitxelena BHI

**HARTZAILEAK:**
4. DBHko eta 1. eta 2. Batxilergoko ikasleak

# LESBIANISMOA ETA BISEXUALITATEA: BADUTE ZERIKUSIRIK NIREKIN?

TREBATZAILEA: **Udane Hermosilla Fernández**, gizarte-hezitzailea, sexu- eta genero-aniztasunean aditua

Sexu- eta genero-aniztasunak guzti--guztiokin dauka zerikusia, eta elkar ulertzeko edo besteen aurrean agertzeko moduan eragiten du. Zisheteropatriarkatuak indarkeria ezartzen du sexu- eta genero-disidentzien gainean, eta modu askotara nahiz maila ezberdinetan eragiten du (LGTBIfobia).

Lantegi honetan, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko esparru orokorra azaldu ondoren, lesbianismoari eta bisexualitateari helduko diegu. Histeria kolektiboak egin eta Berdintasun Zerbitzuak argitaratu dituen gida pedagogiko eta fanzine batzuetan oinarrituta, zehaztasunez eta hurbiltasunez hausnartuko dugu sexu-joera horien gainean, eta heterosexualitate normatiboak pertsonengan —baita heterosexualitate horrekin bat egiten dutenengan ere— dituen ondorioei begiratuko diegu.

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania (ikastetxeak aukeran)

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 9tik 29ra

**Informazioa eta izen-emateak:** https://v-g.eus/lbi

**Prezioa:** Doako jarduera

'Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea' programaren barruko jarduera

**Oharra:** guztira, 15 prestakuntza antolatuko dira

A25

# AUTODEFENTSA FEMINISTA

TREBATZAILEA: **Esther López Monge**, Safo eskolako kidea eta emakumeei zuzendutako proiektu ugariren sustatzaile eta ohiko kolaboratzailea

Lantegi honetan, beste neska batzuekin elkartuko gara, eta neska izateagatik ezberdin tratatzen gaituztenean nola sentitzen garen adieraziko dugu. Sentimendu horiez arituko gara, eta geure burua babesteko, zaintzeko eta maitatzeko nola defenda gaitezkeen pentsatuko dugu. Honako hauek dira lantegiaren xedeak: ahalduntzea eta autoestimua lantzea, gure gorputzen inguruan hausnartzea, biktima-rola alboratzea eta egoera arriskutsuei geure kabuz aurre egiteko sentimendua lantzea. Erasoetatik defendatzeko, oinarrizko teknikak ikasi behar ditugu, eta praktikan jarri.

**HARTZAILEAK:**

**1. LANTEGIA:**
10 eta 13 urte bitarteko neskak

**2. LANTEGIA:**
14 eta 17 urte bitarteko neskak

## 1. LANTEGIA:

**2022ko urriak 9, 16 eta 23**

**Ordutegia:**
Igandeetan, 10:00etatik 14:00etara

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:**
2022ko irailaren 1etik urriaren 2ra

**Tokia:**
Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 5,40€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 9,12€
MATRIKULA EGITEN DUEN HELDUAREN LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15%
(Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

BAIETZ ULERTU

## 2. LANTEGIA:

**2022ko azaroak 19 eta 26**

**Ordutegia:**
Larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara

**Hizkuntza:** Ele bitan

**Izen-emateko aldia:**
2022ko irailaren 1etik azaroaren 12ra

**Tokia:**
Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 3,60€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 6,08€
MATRIKULA EGITEN DUEN HELDUAREN LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15%
(Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:**
Down-en sindromea duten 13 eta 20 urte bitarteko neska-mutilak

# DOWN POWER

TREBATZAILEA: **Lourdes Pérez Jiménez**, EMAIZEko sexologoa

**2022ko urriak 20 eta 27 eta azaroak 3**

**Ordua:** Ostegunetan, 18:00etatik 19:30era

**Tokia:** Down Araba - Isabel Orbe Elkartea

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Down Araba - Isabel Orbe Elkartea

Down-en sindromea duten neska-mutilek maila afektibo eta sexualean dauzkaten ahalmenak ikustea eta ahalmen horiek baloratzen edota bizitzen ikastea da lantegi honen helburua. Aldi berean, emozioekin bat egitea, identifikatzea eta arlo pertsonalean nahiz harremanen eremuan nola eragiten diguten ikustea da asmoa, gure esku dauzkagun gaitasunez jakitunago izan gaitezen. Esku artean duten ahal handiaz jakitunagoak izatea da amaierako helburua.

**HARTZAILEAK:** 9 eta 14 urte bitarteko neskak

# GURE ZIKLO MENSTRUALA

TREBATZAILEA: **Zuriñe Hidalgo**, *coach* menstruala

Lantegi honetan, gure ziklo menstruala deskubrituko dugu, ulertu egingo dugu, eta maitatzen eta gozatzen ikasiko dugu.

Gure gorputzean hasi eta bukatzen den bidaiari ekingo diogu: autoezagutzaren bidaia zoragarriari, hain zuzen ere. Hala, ziklo menstrualaren lau faseak zeharkatuko ditugu, bakoitzaren ezaugarriak aztertzeko eta ilargialdiekin, emakumeen arketipoekin eta urtaroekin lotzeko.

Odolaren aberastasunaz jabetuko gara, odola naturalizatuko dugu, eta tabuak hautsiko ditugu. Halaber, gorputzean eta emozioetan izaten ditugun aldaketez hitz egingo dugu; odol-jarioa daukagunean erabil ditzakegun produktuak ezagutuko ditugu, eta minari aurre nola egin ikasiko. Lantegi honetan, ziklo menstruala modu kontziente eta osasuntsuan bizitzea proposatuko dizuegu.

**2022ko urriak 22**

**Ordutegia:** Larunbata, 11:30etik 13:00era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 15era

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**HARTZAILEAK:** 4 eta 12 urte artekoak

**2022ko urriak 22**

**Ordutegia:** Larunbata, 17:00etatik 19:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik urriaren 15era

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 1,13€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 1,90€
MATRIKULA EGITEN DUEN HELDUAREN LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

# ANITZAK GARA

TREBATZAILEAK: **Emma Aguilar** eta **Maitane Iruarrizaga**, serigrafilari artistiko feministak.
Elkarrekin, Torontile dira

Aniztasuna pertsona edo kultura askoren iritziak eta eraginak onartzea izan daiteke. Guk, ordea, modu zabalagoan ulertzen dugu: pertsona ororen bakartasuna, ezberdintasunak eta berezitasunak errespetatu eta maitatzen ikastea litzateke.

Umeek berez duten sormen-gaitasuna eta grina erabiliko ditugu lanketa hau egiteko. Bertan, pertsonaia bat marraztu eta eraikiko dute: Nor da? Non bizi da? Zein hizkuntzatan mintzatzen da? Zer gustatzen zaio? Zer gorrotatzen du? Norekin bizi da? Zerk egiten du berezi?

**HARTZAILEAK:** 7 eta 14 urte artekoak




A25

# Piztu emakumeON energia

Nolakoa litzateke benetako berdintasunean oinarritutako mundu bat? Zer gertatuko litzateke desorekaz eta bidegabekeriaz jositako mundu ilun batean argia piztuko bagenu? Eta guztion energia erabiliz aukera-berdintasuna bermatuko lukeen mundu bat asmatuko bagenu? Eta, bat-batean, zientzialari batek ezjakintasun guztiak desagerrarazteko mirarizko makina bat asmatuko balu? Horrek berdintasuna ekarriko luke? Eta zientzialari hori emakumea balitz?

Ustezko zientzia-biltzar zoro eta dibertigarri honetan, bi antzezleek hankaz gora jarriko dute guztia. Emakume zientzialarien historian nabigatuko dugu: Marie Curie izango dugu ardatz eta gida, eta emakumeek zientzian izandako benetako pisua ikusiko dugu, hainbat esperimentu egiteaz gainera. Bidaia horren ondoren, ideia berriak piztuz, agian, makina horrek barruan gordetzen duen sekretuaz jabetuko gara...

**Aktoreak:** Tania Fornieles eta Nahikari Rodriguez

**Konpainia:** Eidabe ekimen kulturalak

BAIETZ ULERTU

**2022ko azaroak 12, larunbata**

**Ordua:** 18:30

**Tokia:** Aldabe gizarte-etxea (areto nagusia)

**Hizkuntza:** Euskara

**Gonbidapenak:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**HARTZAILEAK:**
3. DBHko ikasleak

# MaitEzmindu / ViolenciaNoesAmor (Indarkeria matxistaren prebentzioa)

TREBATZAILEAK: **EMARALDA Sozietate Kooperatiboa** (ERROTIK)

Indarkeria matxista adierazpide guztietan prebenitzeko lantegiak. Ikasle neskek indarkeria matxista identifikatzeko eta indarkeria horri aurre egiteko tresnak eskuratuko dituzte, eta, mutilekin, jokaera matxisten prebentzioa landuko dugu, jokabide horien aurrean modu aktiboan erantzutera animatzearekin batera. Halaber, normatiboak ez diren sexu-joera eta genero-identitatea dutenen kontrako indarkeriaren identifikazioa eta arbuioa landuko ditugu.

**Lantegiak 2023ko lehenengo seihilekoan egingo ditugu.** Datak ikastetxe bakoitzarekin zehaztuko dira

**Hizkuntza:** Euskara / Gaztelania (ikastetxeak aukeran)

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 9tik 29ra

**Informazioa eta izen-emateak:** https://v-g.eus/33dX2wW

**Prezioa:** Doako jarduera

'Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea' programaren barruko jarduera

**HARTZAILEAK:** 8 eta 14 urte artekoak

# KAPOEIRA SAFOKO BERINBAOA

TREBATZAILEA: **Sabine Rahde**, *Foca*, kapoeirako irakaslea

Gurekin dantzatzera etorri eta "jogatu" nahi duzu? Kapoeira arte/borroka afrobrasildarra da. Askotariko mugimenduak dauzka, jatorria batez ere Angolan dutenak, eta bidegabekerien aurka protesta egiteko modua izan dira historian. Kapoeira borobilean jarrita egiten da, eta diskriminazio mota guztien aurkako borrokaldiak adierazteko gunea da; ahalduntze feministarako tresna da.

**2023ko urtarrilak 14 eta 28, otsailak 11 eta 25, martxoak 11 eta 25, apirilak 15 eta maiatzak 6**

**Ordutegia:** Larunbatetan, 17:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko urtarrilaren 7ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 10,80€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 18,24€
MATRIKULA EGITEN DUEN HELDUAREN LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

**HARTZAILEAK:** 9 eta 12 urte bitarteko neskak

**2023ko martxoak 5, 12 eta 19**

**Ordutegia:** Igandeetan, 10:30etik 13:30era

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko otsailaren 26ra

**Informazioa eta izen-emateak:**

- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:**
BAZKIDEEK: 4,05€
BAZKIDE EZ DIRENEK: 6,84€
MATRIKULA EGITEN DUEN HELDUAREN LANGABEZIAGATIKO HOBARIA: 15% (Ikusi 'Kontuan hartu beharreko oharrak')

M8

# NAHI DUGUNA IZANGO GARA!

TREBATZAILEAK: **Ane Gebara** eta **Josune Vélez de Mendizabal** arte eszenikoen arloan diharduten bi izen dira, bi izen-abizen, bi emakume alai eta supersortzaile

Antzerkian murgildu nahi duzu? Zerbait darabilzu buruan, bihotzean, barrenetan? Zure sorkuntza-gaitasunetik abiatuta, aire-aire emango diogu zure esanari, zure izanari! Nahi duguna izango gara!

**HARTZAILEAK:** 9 eta 11 urte bitarteko neskak

# GINKANA FEMINISTA

TREBATZAILEA: **Gardabera**, hezkuntzaren eremuko eta disziplina anitzeko enpresa

Garrantzitsua da emakumeak eremu guztietan ikusgai egitea, erreferenteak sortzea eta hezkuntzaren eremuan berdintasunerantz abiatzea. Hori dela-eta, neskek tokia eta ahotsa izango dituzten guneak sortu behar dira.

Ginkana honen helburu nagusia da udalerriko emakume gazteak elkartzea eta, jolastu bitartean, feminismoaren balioei buruz hausnartzea: berdintasuna, inklusioa, ikusgaitasuna eta guztion zaintza.

**2023ko apirilak 14**

**Ordutegia:** Ostirala, 18:00etatik 20:00etara

**Tokia:** Emakumeen Etxea - Etxanobe jauregia

**Hizkuntza:** Euskara

**Izen-emateko aldia:** 2022ko irailaren 1etik 2023ko apirilaren 7ra

**Informazioa eta izen-emateak:**
- 010
- Gizarte-etxeak eta kirol-instalazioak
- www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

M17

# 'UMEAK ETA ANIZTASUNA' IPUIN-LANTEGIA

TREBATZAILEAK: **Udane Hermosilla**, **Idoia Carramiñana** eta **Zuriñe Ormaetxe**

**HARTZAILEAK:** 4 eta 8 urte artekoak

## ZENBATEKO ETA NOLAKO FAMILIAK?

Sozializatzeko gune nagusia denez, familia da haurrekin sexu- eta genero-aniztasuna jorratzeko erreferente egokienetako bat. Gida gisa, ipuin bat erabiliko dugu. Ipuin horretan, normatiboa ez den familia bat agertzen da, bi ama dauzkana. Halaber, beste alderdi batzuei ere begiratuko diegu; hala nola, familietako kideen jatorriari edo testuinguru kulturalari. Izan ere, guztiak ez dira autoktonoak eta zuriak, eta familia guztiak ez daude bikote heterosexual batek eta seme-alabek osatuta.

**HARTZAILEAK:** 9 eta 12 urte artekoak

## NAIZENA NAIZELA

Niaren eraikuntzan, generoak pisu handia dauka, irudriteria maila mikroan (pertsona-mailan) nahiz makroan (gizarte-mailan) taxutzen duen eta harremanak eraikitzeko moduan ondorioak dauzkan arau sozial bat delako. Lantegiek bi zati dituzte: lehenengoan, taldeak sormena erabiliko du istorio bat kontatzeko, eta, bigarrenean, bakoitzak bere generoari eta inguruneari buruzko hausnarketa egingo du.

BAIETZ ULERTU

**Hizkuntza:** Euskara

**Informazioa:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

**Prezioa:** Doako jarduera

**Laguntzailea:** Gizarte-etxeen sarea

# ITXIERA

M17

## 2023ko maiatzak 25, osteguna | 18:30

**TOKIA:** Jesús Ibáñez de Matauco antzokia
(Hegoalde gizarte-etxea)

**GONBIDAPENAK:** www.vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista

### EZ AMOUR EZTA TOUJOURS

Look eta taularatze zaindu eta teatral batekin, show-formula berezia eskainiko dugu, kabaretaren, hitzezko kontzertuaren eta 'kontzientzia feministadun komedia musikalaren' artean dabilena. Bertan, 'zeremonietako gidariak' egituratu eta gidatuko ditu musika-emanaldiak, Amanda Palmer, Natalia Lafourcade, Britney Spears, Coco Chanel, Don Omar, Jeanette, Liza Minelli eta gorputz guztiek gero eta askeagoak izan behar dutela pentsatu bitartean eszenatoki gainean zutik egoten saiatu diren divez goza dezazuen.

Musika eta kritika feminista, plazerez eta umorez: zuzenean joko ditugu estilo eta garai desberdinetako abesti ezagunak (60ko hamarkadatik gaur egunera artekoak), eta abesti horiek gure bizitzetan izandako inpaktua aztertuko dugu.

ARTISTAK

**Actea Fuentes** BOSeko perkusio-jotzailea perkusioaz eta koroez arduratuko da.

**Aranzazu Calleja** konpositore eta biolin-jotzaileak gitarra eta ukelelea joko ditu, eta koroak egingo.

**Cris Lizarraga** artista, idazle eta Belako taldeko abeslariak abestu egingo du, eta teklatua joko.

**Esther López** BOSeko tronpeta-jotzaileak tronpeta joko du, eta koroak egingo ditu.

**Irantzu Varela** kazetari feminista, eduki-sortzaile eta bakarrizketaria show leader-a izango da, zeremonien gidaria. Kontu honen sazerdotisa eta madama.

**Maite Arriotajauregui, 'Mursego'**, konpositore, abeslari eta biolontxelo-jotzailea, biolontxeloaz eta koroez arduratuko da.

BAIETZ ULERTU





# GASTEIZKO EMAKUMEEN ETXEA

Gasteizko Emakumeen Etxea jabetze feminista indibidual eta kolektiborako lekua da. Erreferentziazko gunea emakumeentzat zein kolektibo feministentzat.

**INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA**
emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city
945 161 214
Santa María 11
vitoria-gasteiz.org/emakumeenetxea

# TOPAGUNEAK

- SOLASALDI FEMINISTAK
- JATORRI ANITZEKO EMAKUMEEN BILGUNEA
- AMEN ARTEAN
  → amatasun feministak
- AUTODEFENTSA FEMINISTA
  → indarkeria matxistak eta horiei aurre egiteko baliabideak identifikatzen ditugu
- FEMINIST AGENDA IRAKURLE-KLUBA
- LA HORA VIOLETA IRAKURLE-KLUBA
- WIKIKEDADA FEMINISTAK
  → Wikiemakumeok taldearekin
- HIRIGINTZA FEMINISTA





# ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

- ELEEN GANBARA SORGINENEA
  liburutegi feminista
- AHOLKULARITZA SOZIOLABORALA
  etxeko eta zaintzako langileentzat
- ALMANAKE MOREA
  jarduera feministak euskaraz
- KANBALATXE FEMINISTA
  denboraren banku feminista
- IKERKETA FEMINISTEN ERAKUSLEIHOA
  generoari lotutako ikergaiak
- ESPAZIOEN LAGAPENA
  talde eta ekimen feministentzat